VITORIA GASTEIZ green capital

1\.

Lauhilekoa

2016ko
IRAILA
ABENDUA



# EMAKUMEON Jabekuntzarako ETA BERDINTASUNERAKO ESKOLA

**2016ko** IRAILA // ABENDUA

#BerdinEskolaVG

Berdintasuna.Igualdad @VG_berdintasuna

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

EMAKUMEON Jabekuntzarako ETA BERDINTASUNERAKO ESKOLA

## INFORMAZIO GEHIAGO

Informazio-telefonoa: **010**
Gasteiztik kanpo deituz gero: **945 161 100**

## BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA

Santa María, 11- Etxanobetarren etxea

945 161 345

igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

Berdintasuna.Igualdad

@VG_berdintasuna

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

Diseinua eta maketazioa: Núria Frago

Eskolako Idazkaritza teknikoa:
Berdintasun Proiektuak, S.Koop.

# Aurrera!

Ongi etorri Gasteizko 2016/2017ko Emakumeon Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolara!

Edizio honetan, sorkuntzara hurbilduko gara, geure burua askatzeko eta sexualitate anitzak, feminismo erromania eta munduak mugitzen dituzten binetak aldarrikatzeko tresna gisa. Feminismoak gure bizitzak nola eraldatzen dituen hitz egingo dugu; bai eta doluez, galerez eta erresistentzian dauden nahiez ere. Ordenagailuak programatzen, gizarte esku-hartzeetan genero ikuspegia txertatzen, mendian orientatzen eta bizikleta-ibilbideak prestatzen ikasiko dugu. Idatzi egingo dugu, pelikulak ikusiko ditugu, nobelak irakurriko, eta horiei buruz arituko gara. Gure gorputzeko mapetan bidaiatuko dugu, danborrak joko ditugu eta dibertitu egingo gara. Eta, adi egoteari utzi gabe, indarkeria matxistari aurre egiteko estrategiak pentsatzen -eta zabaltzen- jarraituko dugu. 50 jardueratik gora izango ditugu aukeran: hitzaldiak, zineforumak, irakurle-klubak, ikastaroak eta lantegiak.

Iradokitzailea da kanpotik, ezta? Bada, are iradokitzaileagoa da barrutik! Eskolaren bidez  lortutako ikaskuntza jabekuntzaren bide luzean ondo emandako urrats txikiak dira parte-hartzaileentzat. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zalantzan jartzetik abiarazi da proiektu hau, eta, gainera, diskriminazioaren egiturazko beste iturri batzuei ere begiratzen die. Lehenik eta behin, emakumeok geure buruaren irudi positiboa garatu dezagun lagundu nahi du, eta baita lagundu nahi du ere geure gaitasunen gaineko konfiantza handiagoa izan dezagun. Denborarekin, parte-hartzaileen talde-indarrak gure arteko elkartasuna sustatuko du, eta herritar garen heinean ukitzen gaituzten erabakietan eragiteko asmoz antolatzen diren jarduerak bultzatuko ditu.

Ateak ireki aurretik, eskerrak eman nahi dizkiogu hiriko mugimendu feministari, izan ere, horren laguntzarik gabe, eskola hau ez litzateke orain dena izango. Orain bai, aurrera!

# Kontuan hartu beharreko oharrak:

1. **Zeinu hizkuntzako interpretea edo haurtzaindegi zerbitzua** behar izanez gero, jarduera hasi baino hiru egun lehenago jakinarazi iezaguzue: 945 161 345 igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

2. Iritsi ahala esleitzen dira eskolako jardueretarako lekuak, zozketarik egin gabe. Betetzen baldin badira, ez da erreserba-zerrendarik egingo.

3. Irakurle-klubek, ikastaroek eta lantegiek 10 parte-hartzaile behar dituzte gutxienez, eta 20 gehienez.

4. Jarduera mistoak pertsona guztiei zuzenduta daude, eta ez emakumeei bakarrik.

5. Gasteizko elkarteek eta gizarte-taldeek berariaz eskatutako jarduerak hartzen ditu eskolak, eta beren interesen eta beharren zati bat betetzera daude bideratuta horiek. Lankidetza hori gakoa da jabekuntza kolektiborako eta hiriko elkarte-sarea indartze aldera. Horregatik, aipatutako jarduerak doan izatea erabaki du Berdintasunerako Zerbitzuak, eta bazkide ez diren emakumeei ere zabalik egotea.

6. Udaleko instalazioetan abonatutako pertsonek kuota murriztua izan dezakezue ordaindu beharreko ikastaroetan eta lantegietan.

7. Langabezian zaudetenok prezioaren gainean % 15eko murrizketa izateko eskubidea duzue. Horretarako, nahikoa da Lanbideko “Izen-emate aldiko ziurtagiria” aurkeztea. Ziurtagiriak jardueran izena eman aurreko zazpi egunetan jaulkitakoa izan beharko du.

8. Izena eman baduzue, baina azkenean ezin baldin baduzue jarduera egin, jakinaraz iezaguzue hasiera eguna baino lehen. Horrela egin ezean, ordaindutako kuota galduko duzue. Dirua itzuliz gero, zuen banku-kontuan sartuko da. Ordaindutako zenbatekoaren %15 atxikiko dugu. Jardueran baja ematen bada, hutsik geratu den lekuan eman ahal izango du izena beste pertsona batek.

9. Gutxieneko izen-emate kopurura iristen ez diren jarduerak bertan behera gera daitezke. Kasu horretan, ordaindutako kuotaren % 100 sartuko dizuegu banku-kontuan.

# 2016/17

# Ikasturtearen irekiera

## Osteguna, 2016ko irailaren 29an 18:30ean

Goiuri jauregian (Martin de Salinas aretoan)

HAUEK HARTUKO DUTE PARTE:

**Gorka Urtaran Aguirre,**
Gasteizko alkatea

**Blanca Guinea Astobiza**,
Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria

**Emakumeen etxeak; norberaren logela Gasteizen**
**Karmele Jaio Eiguren,**
idazlea eta kazetaria

**Esperientzia batzuk:**
**Laida Arrieta Cristóbal**,
Donostiako Udaleko Berdintasun teknikaria

**Anabel Sanz del Pozo,**
Basauriko Udaleko Berdintasun teknikaria

**Kancaneo Inprobisazio Antzerkia** 'Pa ti pa mí' ikuskizuna.



# Hitzaldiak

**Goiuri jauregian (Martin de Salinas aretoan)**
**19:00etatik 21:00etara**

**Sarrera doan tokiak bete arte**



## Asteartea, 2016ko urriaren 11

### ‘Yes, we fuck’ bideoa eta hausnarketa-proiektua. ‘Bere eskuak naiz bere gorputzean’

**Hizlariak:**
**Mertxe Sánchez,**
dokumentaleko protagonista
**Antonio Centeno** eta
**Raúl de la Morena**,
dokumentalaren zuzendariak
**Moderatzailea:**
**Igor Nabarro Brea**, **Eginaren Eginez** taldeko kidea

**Hizkuntza:** gaztelania




## Asteartea, 2016ko azaroaren 8a

### Indarkeria matxista: mitoak eta zurrumurruak

**Hizlaria :**
**Miguel Lorente Acosta**,
Granadako Unibertsitateko Auzitegiko Medikuntzako irakaslea, auzitegi-medikua eta gobernuko ordezkari ohia genero-indarkerian

**Moderatzailea:**
**Sara Buesa Rodríguez,**
Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko zuzendaria

**Hizkuntza:** gaztelania

## Asteartea, 2016ko abenduaren 13a

### ‘Izena eta izana ezbaian’ gida praktikoaren aurkezpena

**Hizlaria :**
**Saioa Iraola Urkiola,**
**Bilgune Feministako** kidea eta gida egin zuen taldekoa

**Moderatzailea:**
**Maitane Ortiz, Neska Gazteok Egurra** taldekoa

**Hizkuntza:** euskara

# “berdinzinema”
# ZINEFORUMA



**Goiuri jauregian (Martin de Salinas aretoan)**
**18:30etik 21:00etara**

Sarrera doan tokiak bete arte

**Zineforumen koordinatzailea eta dinamizatzailea**
**Helena González Estévez,**
aditua zineman
eta giza eskubideetan,
**ZINHEZBA**
elkarte kulturaleko kidea

## Osteguna, 2016ko urriaren 27a

# Nahid




Jatorrizko bertsioa pertsieraz, gaztelaniazko azpitituluekin

**Zuzendaria:** Ida Panahandeh

**Urtea:** 2015

**Iraupena:** 106 minutu

**Generoa:** Drama

**Gaia:** emakumeen estatutu juridikoa / patriarkatua

**Zineforumeko hizkuntza:** gaztelania

**Sinopsia:** Nahid bakarrik bizi da, hamar urteko semearekin batera, Irango iparraldean, Kaspiar itsasoaren ondoan. Dibortziatu ondoren, senar ohiak bidegabeki eskuratu du haurraren zaintza, Irango legeek ezartzen duten bezala. Semearekin geratu ahal izateko xedez, senar ohiaren xantaia onartuko du Nahidek, hau da, ezingo da berriro ezkondu.

## Osteguna, 2016ko azaroaren 24a

# Laurence Anyways




Jatorrizko bertsioa frantsesez, gaztelaniazko azpitituluekin

**Zuzendaria:** Xavier Dolan

**Urtea:** 2012

**Iraupena:** 168 minutu

**Generoa:** Drama

**Gaia:** transexualitatea / genero-identitatea

**Zineforumeko hizkuntza:** gaztelania

**Sinopsia:** Lawrence literaturako irakasleak emakume bihurtzeko asmoaren berri eman du bere 30. urtebetetze-egunean, lagunen eta neska-lagunaren harridurarako. Aldaketa-prozesuan bere ondoan egotea onartuko du azken horrek.

## Osteguna, 2016ko abenduaren 15a

Zuzendaria egongo da

# Bederatzi baten erretratua




Jatorrizko bertsioa gaztelaniazko zeinu hizkuntzan, gaztelaniazko azpitituluekin

**Zuzendaria:** Inmaculada Medina

**Urtea:** 2012

**Iraupena:** 60 minutu

**Generoa:** thrillerra

**Gaia:** familiako harremanak / suspensea

**Zineforumeko hizkuntza:** Zeinu hizkuntzako Interpretea/Gaztelania

**Sinopsia:** Cristina Pozo fiskala da, eta, urteek aurrera egin ahala, karguan gora egin du Justizia Ministerioan. Abokatu zeneko sekretu bat gordetzen du Cristinak: errugabe bat sartu zuen kartzelan, eta, bera ateratzekotan zela, ziegan buruaz beste egin duela jakin du.



# Irakurle-klubak



# ‘Feminist Agenda euskal literaturan’ irakurle-kluba

Irakurle-klub hau mistoa da

## Koordinatzailea:

**Gema Lasarte Leonet,** Doktorea Literatur Zientzietan eta Literaturaren didaktikako irakaslea UPV/EHUn. Irakurzale eta literatur zale amorratua da, eta hainbat liburu eta artikulu idatzi ditu.

Lantegi honen bidez, euskaraz idatzitako edo euskarara itzulitako literaturara hurbildu nahi dugu ikuspegi feministatik, emakumeak zein gizonak inplikatuz, berdintasuna sustatuko duen auto-kontzientzia sortze aldera. Hainbat literatur testu aztertuko dira saioetan; horien trama, adierazpenak, pertsonaiak eta abar. Emakumeak eta, jakitun izanda ala ez, emakumeek idaztean erabiltzen duten agenda egongo dira erdigunean.

- **Ordua:** 19:00etatik 21:00etara

**hilabete bakoitzeko lehenengo asteazkenean:**

| 2016ko | 2017ko |
|---|---|
| urriaren 5ean<br>azaroaren 2an<br>abenduaren 14an | urtarrilaren 11n<br>otsailaren 1ean<br>martxoaren 1ean<br>apirilaren 5ean<br>maiatzaren 3an |



- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** euskara
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik lekuak bete arte
- **Urteko prezioa:** Bazkideek: 4,80€ Bazkide ez direnek: 8,00€

Langabeziagatiko hobaria: %15 ( ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 7)

**Laguntzailea:** Udal Liburutegien Sarea

**Informazioa eta izen-ematea:** 010 / gizarte-etxeak eta kirol instalazioak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

# ‘Ordu bioleta’ irakurle-klub feminista

**Hartzaileak: emakumeak**

## Koordinatzailea:

**Begoña Etayo Ereña,** genero-berdintasunean eta garapen-lankidetzan aditua eta **Maria de Maeztu forum feministako** kidea.

Feminismoaren kolorea bioleta da, eta ilunsentiaren ordua da ordu bioleta. Egunak eta gauak elkar besarkatzen duten ordu horretan, aurretik irakurri dugun liburu baten gaineko iritziak trukatzeko elkartuko gara emakume talde bat. Emakumeen kontzientzia kolektiboan arakatzea ahalbidetuko diguten nobelak, saiakerak eta iritzi-artikuluak aurkituko ditugu bertan. Testu horien irakurketa pertsonal eta intimoaren bidez ikastea da xedea, baina baita hasieran eraiki dugun irudia gainerakoen ekarpenekin osatzea ere. Feminismoaren gaineko prestakuntza jasoko dugu, eta gure bizitzak nola aberastu ditzakeen ikusiko.

**I.lantegia - Ordua: 18:30etik 20:30era Hilabete bakoitzeko hirugarren asteazkenean:**

| 2016 | 2017 |
|---|---|
| urriaren 19an<br>azaroaren 16an<br>abenduaren 21ean | urtarrilaren 18an<br>otsailaren 15ean<br>martxoaren 15ean<br>apirilaren 19an<br>maiatzaren |

**II. lantegia - Ordua: 19:30etik 21:30era Hilabete bakoitzeko laugarren asteazkenean:**

| 2016 | 2017 |
|---|---|
| urriaren 26an<br>azaroaren 23an<br>abenduaren 22an (osteguna) | urtarrilaren 25ean<br>otsailaren 22an<br>martxoaren 22an<br>apirilaren 26an<br>maiatzaren 24an |

- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik lekuak bete arte
- **Urteko prezioa:**
  Bazkideek: 4,80€
  Bazkide ez direnek: 8,00€

Langabeziagatiko hobaria: %15 (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 7)

**Laguntzailea:** Udal Liburutegien Sarea

**Informazioa eta izen-ematea:** 010 / gizarte-etxeak eta kirol instalazioak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

# Ikastaroak eta Lantegiak



# Feminismoa: ezinbesteko eraldaketarako historia iradokitzailea

**2016ko urriaren 6an, 13an, 20an eta 27an; azaroaren 3an, 10ean, 17an eta 24an eta abenduaren 1ean.**

Lantegia mistoa da

Jainkosak, jakintsuak, hezigaitzak, bihurriak, urratzaileak, intsumisoak, ausartak, subertsiboak, kementsuak eta polemikoak. Milioika ahots, geografia ezberdinak. Emakumeek emantzipazioaren alde egin dituzten borroketatik zeharreko ibilbidea eskainiko du lantegiak. Teoria nagusiak, gertakari historikoak eta mugimendu feministak gaur arte izan duen bilakaera jorratuko dira.

**Trebatzailea:**
**Gladys Giraldo Velásquez**, ekintzaile feminista eta **Arabako Emakumeen Asanbladako** kidea

- **Ordua:** ostegunetan, 18:30etik 20:30era
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik 30era
- **Prezioa:**
  Bazkideek: 15,48€
  Bazkide ez direnek: 25,56€
  Langabeziagatiko hobaria: %15 (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 7)

**Informazioa eta izen-ematea:** 010 / gizarte-etxeak eta kirol instalazioak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

# Nire gorputza,
# nire lurraldea

**2016ko urriaren 10ean, 17an eta 24an; azaroaren 7an, 14an, 21ean eta 28an; abenduaren 12an eta 19an.**

Geure buruari beste modu batez begiratzen ikastea, norberaren irudi positiboa garatzea eta gure indarrak antzematea. Geure burua onartzea, maitatzea, baloratzea, zaintzea eta errespetatzea, gure gorputzen, jolasaren eta mugimenduaren bidez, konfiantzazko taldean.

**Hartzaileak: emakumeak**

**Trebatzaileak:**
**Lorena Rejo Lorente,** haur hezitzailea eta gizarte integratzailea, prestakuntza arte eszenikoetan.

**Agurtzane Pinedo,** integratzailea, gizarte hezitzailea, kulturarteko bitartekaria eta yoga irakaslea.

- **Ordua:** astelehenetan, 17:30etik 19:00etara
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik urriaren 3ra
- **Prezioa:** sarrera doan (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 5)

**Informazioa eta izen-ematea:**
hona idatziz: berdineskolavg@vitoria-gasteiz.org

# Sexualitate anitzak.
# Anisexualitateak

**2016ko urriaren 10ean, 17an, 19an eta 26an.**

**Hartzaileak: desgaitasun intelektuala / aniztasun funtzionala duten emakumeak**

Lantegian aniztasun funtzionala duten -zehazki, desgaitasun intelektuala duten- emakumeen sexualitateari eta erotikari begiratuko diegu, gorputz sexuduna, gure harremanak eta gozatzeko ditugun moduak ulertuz eta ezagutuz. Norberaren burua zaintzeko eta gainerako pertsonekiko harremanetan gozatzeko funtsezko babes- eta independentzia-gakoak identifikatuko ditugu.

**Trebatzailea:**
**Inma Ruiz de Lezana Marañón, Emaize** zentro sexologikoko sexologoa eta psikologoa.

- **Ordua:** 18:30etik 20:30era
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Tokia eta datak:**
  **APDEMA elkartea**
  (Zerkabarren kalea 1): astelehenetan, 2016ko urriaren 10ean eta 17an
  **(Senitartekoekin: astelehena, urriaren 24an)**

  **TALUR elkartea**
  (Adriano VI.aren kalea 8): asteazkenetan, 2016ko urriaren 19an eta 26an.
  **(Senitartekoekin: asteazkena, urriaren 5ean)**

# Kode feministan kontatu nahi dugu!

## 2016ko urriaren 14an eta 15ean

Hartzaileak: emakumeak

Zerk bihurtzen du irratsaio bat feminista?
Zein kode eta estrategiaren bidez lortzen da?
Bai, erabiltzen ditugun ikuspegiaren, edukien, terminologiaren bidez... Baina, bada besterik?
Lantegian bira emango diegu teoria praktikara eramaten dugunean sortzen zaizkigun zalantzei, eta pertsonak eraldatzen eta erdigunean ipintzen dituen komunikazio-esperientziak partekatuko ditugu.

**Trebatzailea:**
**June Fernández Casete, Pikara Magazineko** kazetaria eta baterako sortzailea. eldiario.es, Diagonal eta Argiarekin kolaboratzen du

**Laguntzailea:** 'O no será!', Hala Bedi irratiko irratsaioa

- **Ordua:** ostiralean 16:30etik 20:30era eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko urriaren 7tik azaroaren 7ra
- **Prezioa:** sarrera doan (ikus "Kontuan hartu beharreko oharrak". Item 5)

**Informazioa eta izen-ematea:**
hona idatziz: berdineskolavg@vitoria-gasteiz.org



# Jendaurrean hitz egiteko teknikak

**2016ko urriaren 19an eta 26an; azaroaren 2an, 9an, 16an eta 23an**

**Hartzaileak: emakumeak**

Ideia bera bezain garrantzitsua da ideia adieraztea jakitea. Lantegian, komunikazio-prozesu hori zertan den ikusiko dugu; zeintzuk diren tartean sartzen diren elementuak eta zeintzuk gure beldurrak. Prozesu hori ezagutuz eta horretan trebatuz eskuratuko ditugu jendaurrean hitz egiteko teknikak eta ohitura, entzuleak eta egoera kontuan hartuta.

---

**Trebatzailea:**
**Miriam Ocio Sáenz de Buruaga,** psikologoa eta aditua komunikazioan eta generoan

---

- **Ordua:** asteazkenetan, 17:00etatik 20:00etara
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik urriaren 12ra
- **Prezioa**
  Bazkideek: 15,48€
  Bazkide ez direnek: 25,56€
  Langabeziagatiko hobaria: %15 (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 7)

**Informazioa eta izen-ematea:** 010 / gizarte-etxeak eta kirol instalazioak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

# Autodefentsa feminista

**2016ko urriaren 21ean eta 22an**

Lantegi honen bidez, indarkeria matxistaren molde ezberdinak ulertzen, hautematen eta horien aurrean banaka eta taldean defendatzen ikasiko dugu, bizipen-dinamiken bidez. Dinamika horietan, gorputzaren, emozioen eta autoestimuaren dimentsioak tartekatuko dira.

**Hartzaileak: emakumeak**

**Trebatzailea:**
**Emagin Elkartea**

- **Ordua:** ostiralean 16:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era
- **Non:** Aldabe gizarte-etxean (erabilera anitzeko aretoan)
- **Hizkuntza:** euskara

**Izena emateko aldia:**
2016ko irailaren 7tik urriaren 14ra

- **Prezioa:**
  Bazkideek: 10,32€
  Bazkide ez direnek: 17,04€
  Langabeziagatiko hobaria: %15 (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 7)

**Informazioa eta izen-ematea:** 010 / gizarte-etxeak eta kirol instalazioak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

# Generoa eta kulturartekotasuna

## 2016ko urriaren 21ean eta 28an

Hartzaileak: EHUko ikasleak*

Immigrazioa gertakizun oso garrantzitsua izan da tokiko eskolarentzat azken hamabost urteotan. Lantegiaren asmoa kulturartekotasunaren erdiguneko alderdiak jorratzea da, hezkuntza eremuan lan egitean eta jatorriz atzerritarrak diren familiekin eta haurrekin esku hartzean lagunduko diguten eta hainbat kontu argituko dizkiguten irizpideak aurkitu ahal izan ditzagun.

* Hartzaileak: Vitoria-Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleak eta Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako ikasleak. (EHU)

**Trebatzailea:**
**Amelia Barquín,** doktorea da Filologia Erromanikoan eta irakaslea Kulturarteko Heziketan eta Hezkuntza eta Generoan, **HUHEZI**n (Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean).

- **Ordua:** ostiraletan, eskola orduetan
- **Non:** UPV/EHUko lokaletan
- **Hizkuntza:** euskara / gaztelania



# Nola sartu **genero-ikuspegia** gizartean esku-hartzean: baterako kodeak sortuz

**2016ko urriaren 24an; azaroaren 7an, 14an, 21ean eta 28an**

Esku-hartzeko jarraibideen eta praktiken inguruan hausnartzea da lantegiaren xedea, genero- eta jabekuntza-ikuspegia txertatzeko horietan. Metodologia parte-hartzailea izango da, irekia, eta parte-hartzaileen beharrei eta interesei egokituko zaie.

**Hartzaileak: erakunde sozialetako kideak***

***Hartzaileak**: erakunde sozialetako kideak, gizarte bazterketan edo bazterketarako arriskuan dauden emakume eta gizonekin lan egiten dutenak, bai maila profesionalean, bai boluntariotzan.

**Trebatzailea:**
**Sandra Estébanez López de Subijana eta Josetxu Riviere Aranda, Berdintasun** aholkularitza zerbitzuko kideak.

- **Ordua:** astelehenetan, 11:00etatik 14:00etara
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik urriaren 17ra
- **Prezioa:** sarrera doan (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 5)

**Informazioa eta izen-ematea:**
hona idatziz: berdineskolavg@vitoria-gasteiz.org



# Munduak mugitzeko binetak.
## Komiki sozialari buruzko lantegia

**2016ko urriaren 28an eta 29an**

**Hartzaileak: emakumeak**

**UNRWA Euskadirako** egindako komikitik abiatuta, Gazako zerrendako emakumeen egoerari buruzkoa hori, komikien adierazpide narratiboa eta bisuala, bai mezuak modu zuzenean helarazteko orduan, bai eskubideen urraketen errealitateak islatzeko orduan, oso eraginkor dela ikusteko balioko du lantegiak. Komiki baten sorkuntza-prozesua ikusiko dugu, gidoitik eta hasierako zirriborrotik hasi eta azken orrialderaino, komikien ezaugarrietatik igaroz, eta tresna pedagogiko gisa nola erabil daitekeen ikasiz. Azken ariketa modura, auto-argitalpen txikia edo fanzinea egingo dugu.

**Trebatzailea:**
**Susanna Martín,** komiki-egilea, ilustratzailea eta irakaslea

- **Ordua:** ostiralean 16:30etik 19:30era eta larunbatean 10:00etatik 13:00era
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik urriaren 22ra
- **Prezioa:**sarrera doan (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 5)
- **Kolaboratzailea:** **UNRWA Euskadi**

**Informazioa eta izen-ematea:**
hona idatziz: berdineskolavg@vitoria-gasteiz.org

# Konponketarako eskubidea indarkeria matxistaren ondoren: irabazi gabeko apustua

**2016ko azaroaren 4an eta 5ean**

lantegi hau mistoa da

Askotan, oso gutxi ikusarazten dira indarkeria matxisten egiturazko eta epe luzerako eraginak, eta, modu berean, ez da erakundeen eta gizartearen erantzukizuna jorratzen, mota horretako gehiegikeriei aurre egin dieten emakumeek konponketarako duten eskubidea eraginkorki aitortzeari dagokionez. Indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeek konponketarako duten eskubidearen irismenaren inguruan hausnartzeari ekingo zaio saioan, bai eta indarkeria horien eraginak hobeto ikusarazteko estrategiak elkarrekin pentsatzeari ere.

**Trebatzailea:**
**María Naredo Molero,** legelari feminista eta giza eskubideen defendatzailea.

- **Ordua:** ostiralean 16:30etik 20:30era eta larunbatean 9:30etik 13:30era
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik urriaren 28ra
- **Prezioa:** Bazkideek: 6,88 € Bazkide ez direnek: 11,36 €

  Langabeziagatiko hobaria: %15 (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 7)

**Informazioa eta izen-ematea:** 010 / gizarte-etxeak eta kirol instalazioak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

# Geure burua berriz pentsatzeko tartetxoa

**2016ko azaroaren 8an, 10ean, 15ean, 17an, 22an eta 24an**

Jabekuntzarako bidean aurrera egitea ahalbidetzen diguten giltzarriak hautematen jarraituko dugu, eta horietan sakontzen, norbanakoaren zein taldeko dimentsioan. Metodologia parte-hartzailea erabiliko dugu, bizipenetan oinarritutakoa, egunerokotasunean gertatzen zaigun horretara bilduz gogoa.

**Hartzaileak: Gao Lacho Drom elkarteko emakumeak**

---

**Trebatzaileak:**

**Olga Borja Borja,** gizarte hezitzailea eta lan-orientatzailea **Ijitoen Idazkaritza Fundazioa**

**Miriam del Río Sánchez**, berdintasun teknikaria eta community manager-a.

- **Ordua:** 15:00etatik 16:15era
- **Non:** Sansomendiko gizarte-etxean (erabilera anitzeko aretoan)
- **Hizkuntza:** gaztelania



# Transfeminismoak

**2016ko azaroaren 11n eta 12an**

Feminismoa ez du diskurtso bakarrak osatzen, korronte eta praktika politiko anitzek eratzen dute. Transfeminismoa korronte horietako bat da. 2000. urtean sortu zen, eta sexuaren, generoaren eta desiraren eraiketaren gaineko irakurketa berria proposatzen du. Era berean, korronte horren ustean, transexualitatea eta transgenerismoa feminismoaren barruan sartu behar dira, eta oso jarrera argia dauka prostituzioaren eta pornografiaren inguruko eztabaidetan. Lantegian kontu teorikoak (Butler eta Preciado) zein praktika politiko transfeministekin zerikusia duten kontuak jorratuko dira.

**Trebatzailea:**
**Josebe Iturrioz López**, Filosofian lizentziatua, masterra Emakumeen eta gizonen berdintasunean eta **Medeak** taldeko kidea

**Hartzaileak: emakumeak, bollerak eta transak** (herritar guztiei irekita)

- **Ordua:** ostiralean 16:30etik 20:30era eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** euskara
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik azaroaren 4ra
- **Precio anual:** Bazkideek: 6,88€ Bazkide ez direnek: 11,36€

Langabeziagatiko hobaria: %15 (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 5)

**Informazioa eta izen-ematea:** 010 / gizarte-etxeak eta kirol instalazioak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

# Zaintzen inguruko hausnarketak eta bizipenak partekatzen

**2016ko azaroaren 17an**

**(Lima-Hegoaldeko emakume artisauen eta ekintzaileen jabekuntza-prozesua)**

Lantegiak bi zati edukiko ditu. Lehenengoan, zaintzen inguruko hausnarketak eta bizipenak partekatuko ditugu. Bigarrenean, horiei buruz hausnartuko dugu, hots, emakumeek eta gizonek dituzten zereginei buruz, zailtasunei buruz, desberdintasunei buruz eta horiei aurre egiteko eta horiek aldatzeko orduan topatzen ditugun erronkei buruz.

**Hartzaileak: emakumeak**

**Trebatzailea:**
**Aurora Ríos** eta **FOVIDA elkartea**
**Koordinatzailea:**
**Ananda Abaigar (ADSIS Fundazioa)**

- **Ordua:** osteguna, 16:30etik 20:30era
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik azaroaren 10era
- **Prezioa:** sarrera doan (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 5)

**Informazioa eta izen-ematea:**
hona idatziz: berdineskolavg@vitoria-gasteiz.org



# Krisien botere sendagarria.
## Doluak eta galerak

**2016ko azaroaren 18an eta 19an**

**Hartzaileak: emakumeak**

Sendatu, orrialdeak itxi eta bakean bizi ahal izateko, doluak egin behar dira. Dolu bat ondo ixteak amaitu gabeko kapitulurik ez uztea dakar, gauzak eta pertsonak beren lekuan jartzea, emozioen gaineko kontzientzia hartzea eta horiek askatzea, enkistatu ez daitezen eta eralda gaitzaten. Bizitako esperientzia eta etapa bakoitzetik askatu behar dira erruduntasuna eta erresumina, energia eta osasuna kentzen baitizkigute, eta bizitakoaren osotasuna, maitasuna eta ikaskuntza jaso.

**Trebatzailea:**
**Kontxi López Soria,** gizarte langilea eta sexologoa. Elkar aurkitzeko terapian trebatutako profesionala.

- **Ordua:** ostiralean 16:30etik 20:30era eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
- **Non:** Goiuri jauregian (Pedro Martinez de Alava aretoa)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik azaroaren 11ra
- **Prezioa:** Bazkideek: 9,46€ Bazkide ez direnek:15,62€

  Langabeziagatiko hobaria: %15 (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 7)

**Informazioa eta izen-ematea:** 010 / gizarte-etxeak eta kirol instalazioak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

# Autodefentsa feminista (hastapena)

**2016ko abenduaren 16an eta 17an**

Emakumeen aurkako indarkeria gertaera posibleei erantzun ahal izango dieten gaitasun fisikoak eta sendotasun psikologikoak garatzeko lantegia.

**Hartzaileak: emakumeak**



**Trebatzailea:**
**Maitena Monroy Romero**, fisioterapeuta eta aditua emakumeen aurkako indarkerian

- **Ordua:** ostiralean 16:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era
- **Non:** Aldabe gizarte-etxean (erabilera anitzeko aretoan)
- **Hizkuntza:** gaztelania
- **Izena emateko aldia:** 2016ko irailaren 7tik abenduaren 9ra
- **Prezioa:**
  Bazkideek: 10,32€
  Bazkide ez direnek:17,04€
  Langabeziagatiko hobaria: %15 (ikus “Kontuan hartu beharreko oharrak”. Item 7)

**Informazioa eta izen-ematea:** 010 / gizarte-etxeak eta kirol instalazioak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

# Iraila



| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA |
|---|---|---|
| | 6 | **7** I lauhileko IKASTARO ETA LANTEGIETAN izen-emateko epea hasiko da |
| 12 | 13 | 14 |
| 19 | 20 | 21 |
| 26 | 27 | **28** ♀ Sexu eta Ugalketa Eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna |

# 2016KO EGUTEGIA

| OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 |
| 8 | 9 | 10 | 11 |
| 15 | 16 | 17 | 18 |
| 22 | 23 | 24 | 25 |
| 29<br>2016/2017 IKASTURTEA-REN IREKIERA | 30<br>Izen-emateko azken eguna: Feminismoa: ezinbesteko eraldaketarako historia iradokitzailea | | |

# Urria

| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA |
|---|---|---|
| 3<br>**Izen-emateko azken eguna: Nire gorputza, nire lurraldea** | 4 | 5 Anisexualitateak hasiko da (Talde itxita. Talur).<br><br>'Feminist Agenda euskal literaturan' irakurle-kluba hasiko da. (Izen- emateko epea irekia lekuak bete arte) |
| 10<br>Anisexualitateak hasiko da (Talde itxita. Apdema). | 11 HITZALDIA:<br>'Yes, we fuck' bideoa eta hausnarketa-proiektua. 'Bere eskuak naiz bere gorputzean' | 12<br>**Izen-emateko azken eguna: Jendaurrean hitz egiteko teknikak** |
| 17<br>**Izen-emateko azken eguna: Nola sartu genero-ikuspegia gizartean esku-hartzean: baterako kodeak sortuz** | 18 | 19<br>'Ordu bioleta' irakurle-klub feminista hasiko da. (I lantegia. Izen-emateko epea irekia, lekuak bete arte) |
| 24 | 25 | 26<br>'Ordu bioleta' irakurle-klub feminista hasiko da. (II lantegia. Izen-emateko epea irekia, lekuak bete arte |

# 2016KO EGUTEGIA

| OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 |
| 6 | 7<br>**Izen-emateko azken eguna: Kode feministan kontatu nahi dugu!** | 8 | 9 |
| 13 | 14<br>Izen-emateko azken eguna: Autodefentsa feminista | 15 | 16 |
| 20 | 21<br>Generoa eta kulturartekotasuna hasiko da (UPV/EHUko talde itxita)<br>**Indarkeria matxistaren aurkako Gizonen eguna** | 22<br>Izen-emateko azken eguna: Munduak mugitzeko binetak. Komiki sozialari buruzko lantegia | 23<br>**Transexua-litatearen despatolo-gizazioaren aldeko Nazioarteko Eguna** |
| 27<br>**ZINEFORUMA: Nahid** | 28 **Izen-emateko azken eguna: Konponketarako eskubidea indar-keria matxistaren ondoren: irabazi gabeko apustua** | 29 | 30 |

# Azaroa

| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA |
|---|---|---|
| 31 | 1 | 2 |
| 7 | 8 HITZALDIA: INDARKERIA MATXISTA: MITOAK ETA ZURRUMURRUAK<br>Geure burua berriz pentsatzeko tartetxoa hasiko da (Gao Lacho Drom talde itxita) | 9 |
| 14 | 15<br>Generoa eta kulturartekotasuna hasiko da (UPV/EHUko talde itxita) | 16 |
| 21 | 22 | 23 |
| 28 | 29 | 30 |

# 2016KO EGUTEGIA

| OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|
| 3 | 4<br>**Izen-emateko azken eguna: Transfeminismoak** | 5 | 6 |
| 10<br>Izen-emateko azken eguna:<br>Zaintzen inguruko hausnarketak eta bizipenak partekatzen | 11<br>Izen-emateko azken eguna:<br>Krisien botere sendagarria. Doluak eta galerak | 12 | 13 |
| 17 | 18 | 19 | 20 |
| 24<br>**ZINEFORUMA**<br>**Laurence Anyways** | 25<br>**Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna** | 26 | 27 |
| 31 | 28 | 29 | 30 |

# Abendua

| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA |
|---|---|---|
| | | |
| 5 | 6 | 7 |
| 12 | 13  HITZALDIA: ‘Izena eta izana ezbaian’ gida praktikoaren aurkezpena | 14 |
| 19 | 20 | 22 |
| 27 | 28 | 29 |

# 2016KO EGUTEGIA

| OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|
| 1<br>2. Lauhileko Ikastaro eta lante-gietan izen-emateko epea hasiko da | 2 | 3 | 4 |
| 8 | 9<br>Izen-emateko azken eguna: Autodefentsa feminista | 10 | 11 |
| 15<br>**ZINEFORUMA: Bederatzi baten erretratua** | 16 | 17 | 18 |
| 23 | 24 | 25 | 26 |
| 30 | 31 | | |